



EUSKARALDIA

Lehen entitateen aurkezpenak

1. DUGUNA DANTZA TALDEA

Duguna Iruñeko dantza taldea da, bertako udalak 1949. urtean sortua, hiriko festa garrantzitsuenetan dantzaren presentzia bermatzeko. Gure dantza-tradizioan edanez, gaur eguneko gizartearen beharrei erantzunen dion errepertorio propioa sortu du taldeak azken hamarkada luzean, Sanfermin Aldapakoaren ezpata-dantza edo Sanferminetako trokeo-dantzak kasu. Euskaraz dantzatzen dugu.

2. EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA

Euskal Herriko Laborantza Ganbara 2005ean sortu zen, Ipar Euskal Herrian laborantza herrikoi eta iraunkorra garatzeko helburuarekin. Ipar Euskal Herriak etxalde eta laborari ainitz behar ditu herriak, kultura eta euskara bizi arazteko. Gure erronka hau da: nola egin gure lan hizkuntza (arduradun, langile...) laborarien artean hain bizia den euskara izaiteko? Nola landu Euskaldunak diren eta euskaldundu nahi duten langileak ere normaltasunez euskaraz lan egiteko baldintzak?

3. MUSIKENE

Musikene, Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegia da, Eusko Jaurlaritzak 2001ean sortua, eta bokazio publikoa duena. Interpretazio, zuzendaritza, pedagogia eta konposizio arloetako musikari profesionalak hezitzea du helburu.

4. SGEL LIBURU DENDA

SGEL liburu-denda Deustun dago kokatuta eta bere jarduera nagusia hizkuntzako arloan garatzen du 30 urtetik baino gehiago. Liburu-dendan gure materiala didaktikoa nahiz hizkuntz guztietarako eleberririk saltzeaz gain, beste bezero batzuei ere banatzen dizkiegu, besteak beste, hizkuntza eskolei, ikastetxeei eta akademiei; horretarako, beti prest gaude informazioa eta aholkuak emateko.

5. EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA

Euskal Herri mailan egituratzen den antolakunde feminista da. Gure helburuak dira: antolakuntza, saretze eta emakumeen* boteretze feminista sustatzea, Mugimendu Feminista artikulatzea eta Euskal Herriko burujabetza feminista elikatzen duten proiektuak eraikitzea. Gure jarduera ardatz ezberdinetan garatzen dugu: herritar guztientzako bizitza duinak, euskara eta feminismoa, indarkeriarik gabeko bizitzak eta bakegintza, herri erakundetzea eta demokratizazioa, minen osatzea...

6. OREKA IT

Oreka IT enpresa desberdinei eraldaketa digitaleko prozesuetan laguntzen dien aholkularitza-taldea da. Kudeaketa-prozesuak hobetzen ditu SAP teknologian oinarritutako soluzioen bidez, bai enpresa handietan, bai enpresa txiki eta ertainetan, betiere hurbileko, kalitate handiko eta epe luzeko zerbitzua eskainiz.

7. LANEKI

Laneki elkartearen (LanbideEkimena) helburu behinena da Lanbide Heziketarako eta lan-esparruko euskarazko ikasmaterialak prestatzea, eta jakinbai.eus atarian erabiltzaileen esku jartzea. Lanekin hainbat egitasmo laguntzen eta aurrera eramaten ditugu, Lanbide Heziketan eta lantokian euskararen normalizaziorako giltzarri diren egitasmoak guztiak ere.

8. KUTXABANK

Kutxabank, Euskal Autonomia Erkidegoko BBK, Kutxa eta Vital, hiru euskal kutxen bategitetik 2012an sortu zen bankua da, eta balio ekonomiko nahiz sozialaren sorrera iraunkorra bultzatzen du, finantza-eskaintza aurreratua, berritzailea eta kalitatezkoaren bidez. Gure negozio-eredua, norbanakoekin zein gure inguruko enpresa eta erakundeekin hurbileko hartu-emanen, konfiantzan eta epe-luzeko harremanen finkatzen da. Gure bezeroak dira Kutxabanken lehentasun nagusia, eta eskaintzen dugun zerbitzuaren kalitatea zaintzeko, bezeroen hizkuntza aukerekin bat egiteko lanean dihardugun modu berean, lana bera, euskaraz ere egin ahal izatea dugu erronka, finantzen eremuan, euskararen biziberritzearen eragile nagusietako bat garenez.

9. ARTEPAN

Artepanen ogia euskaraz erosi ahal izatea oinarritzak dela uste dugu. Hizkuntza guztien helburua komunikatzea bada, ez dago ogia erostearen baino funtsezkoagoa den ekintzik. Gure helburua euskara egunerokoetan erabili ahal izatea da eta ez bakarrik entitate publikoetan. Euskara gizarteratu eta dendaratzea gure eskuetan dago. Euskara, ogia bezala, egunero, gure aho eta eskuetatik, zuenetara.

10. ELIKA FUNDAZIOA

Elika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa da. Gure sektorean aholkularitza eta formakuntza bideratzen dugu eta gizartean informazioa. Elikagaien segurtasunari buruz hedatzen eta aholkatzen dugu eta haien baldintzak betetzea errazten dugu.

11. SOKOA

SOKOA 1971. urtean sortu zen, Hendaian, Euskal Herrian enplegua sortzeko proiektuarekin, bertakoen aurrezkiaz baliatuz. Bulego eserlekuak bakarrik ziren hasieran eta orain, hotel, jatetxe eta hainbat tokirentzat osatu dugu jarleku gama.

Hendaiako lantokian 260 langile gira eta momentu huntan, egunero, 2.000 eserleku muntatzen ditugu batz bestean. Gure espezialitatean, kanpoko garapenari ateak ireki dizkiogu, sektorean tamaina handia lortu eta nazioartean lehiakortasuna hobetuz.

Hasiera-hasieratik tokiko ekonomian, dinamismoa eta Europako lankidetzak aktiboa uztartzen jakin du SOKOAK. Gaur egun, langile guztiak akziodunak dira eta SOKOAK bere balioak eguneroko praktikan jartzen ditu.

12. EUSKAL HERRIKO MEATZARIEN MUSEOA

Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa Euskal Herriko meatzaritzaren kultura eta historia eta, bereziki, Bizkaiko meatzaldekoei ikertu eta ezagutaraztera zuzenduta dago, eta 1986. urtean sortu zen, Kultur Elkartea sortu zen urte berean, gizarte-ekimen batetik. Elkarte hori,



besteak beste, meatzari ohiek eta siderurgiako beste langile ohi batzuek osatu zuten; garai hartako industria-krisi larriaren ondorioz, ordura arte Bizkaiko funtsa izan ziren elementuak baztertuta gelditzen ari zirela ikusita sortu zuten elkarte eta meataritzak sortutako elementuak berreskuratu eta zaintzen ditu, modu desinteresatuan; bagonetak, lanabesak, argazkiak eta dokumentuak, besteak beste.

13. ATHLETIC CLUB FUNDAZIOA

2002an sortu zen Athletic Club Fundazioa, eta bere misioa da gizarteak Athletic Clubi ematen dionaren zati bat gizarteari itzultzea. Eta hori gure gizartea hobetzen laguntzea helburu duen jarduera-egitarau zabal baten bitartez egiten da. Horretarako, Fundazioak bere kabuz edo beste eragile eta erakunde sozial batzuekin lankidetzan, hainbat jarduera eta programa jartzen ditu abian denboraldiz denboraldi.

14. UVESCO TALDEA

Uvesco Taldea 1993an sortutako taldea da, elikagaien banaketan liderra. Gaur egun 221 supermerkatu propio ditugu Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Kantabria, Errioxa, Madril eta Avila probintzietan banatuta. BM eta Super Amara (Gipuzkoan soilik) supermerkatuen bidez jarduten dugu, biak ere kalitatean oinarritutako supermerkatu-ereduarekin, aukera zabalarekin, arreta pertsonalarekin eta tokiko produktuekin.

15. GKN ZUMAIA

GKN Zumaia GKN Driveline enpresa multinazionalak Euskal Herrian duen fabrikazio-planta da. Transmisorako osagaien fabrikazioan espezializatuta dago, eta Industria 4.0 kontzeptuen inplementazio handia du. Konpainia 1940an sortu zen eta 400 langile ditu gaur egun. Tresna bereziak fabrikatzeko prozesuan erabiltzen den gehikuntza-fabrikazioko teknologiaren erabiltzaileak gara: tratamendu termikorako induktoreak, prentsetarako matrizeak eta puntzoiak, prototipoen fabrikazio azkarra, besteak beste.